



Jaungoikoa'ren zigorak

Otsail-erdi ta geyago. Negu noz ilgo ta Udabafi noz jayoko. Untz, ler, ereñotz ta beste ofi igar-eziñak egoñaldetik dabe axea, me-leunkiro. Afasti-giro atsegin-eta, egurastu orde, ibiltaldi bat egitea otu yakun. Aldapa-gora, Artxanda-gañeruntz giñoyazala, batera-bestera, bide zuzen barik. txinduñiak iduri, or emenka ebiltzazan biar bakoetaiko bategaz alkar jo genduan. Gizartekeri-zale edo sozialista alderdikoa, antzez, bera. Lenen ixil; gero, artea artuta, asi gintzazan autuan. Berak onako ta arako oldozkunak eta usteak ebazala, lekaide-apaizai bear zan begirune ta lotsa eutsoela, oneik be bizi egin bear ebela ta abar esaten jardun euskun. Goiko Jaunagan, ofaitiño, uste gitxi ei eban, zeru-luñen Egile, altsu. zuzen, ona ta jakituna izanik, ainbat gaiztakeri ta zuzentasun-lege-auste ekusalako. Itzerako: egun areikaz ziarduen Bilbao'ko udaletxeko ziñegotzi atzeñitafak edo atzeñi-zaleak uriburu onetako Josu - Biotzaren oroigalua luferatu bear ebelata. Berak iñoanez, kistañen Jaungoiko ori onen altsua ba zan. alatz edo mirari bat egiñik. Josu'k, bere esku biak jasota, asmu gaizto ofegaz ara joyazanai *geldi or!* esan bear eutsoen.

Jaunak, ofeitaiko alatz edo miraririk zetan egiñik eztaukala, kistañok ondo dakigu; baña, gaurkoz, langile gaxo aren antzeko usteak bufu-muñean dabezala bizi diranak asko dira-ta, begiak zabal eta belañiak erne, Goiko Jauna lotan dagoana eztala egia, guzur galanta baño, ikusi begie. Lau jazoera oneik argi darakuskue zuzenak saritu ta gaiztoak zigoñez astintzen dakian Jauna altsua ta Zuzentasun-zalea dana. Irakufi; beste asko lez, egunotan danen aũfean jazoak dira; beraz egiak.




Malaga-urian zan. Aziera txañeko gizon batek Mena ospatsuak otalatuako Kisto Gurutzalduari anakak ausi eutsozan. Baña

nebala, safitan lufa meidu neban neure luzetasunagaz eta Obispo jauna izanagaitik lokatzez eta urez beterik etxera eldu nintzan. Baña kristiñauak karidade andia dauke. Etxera eldu nintzarian gertu euken urberua eta artu neban bañu bat eta ederki gelditu nintzan meza santua esateko ¡Ai nere semetxo maitea! esango dozu: Ze bizi modu tristia ori! Ez neure atxo maitia; bizi modu au ez da tristia; osasunagaz eta alai eta bizkor emen gentia dabil. Jaungoikua ona dan lez, beti laguntzen dausku geure biefetan eta mutil zafa izanagaitik lokatzetan be, salto bizkor egiten dau. Zeuk be nigaitik Jesusi egunero efesetan dautzezu, ta ni be egunoro mezan akordatzen naz neure gurasoakin. Mundu onetan zer jan euki daizuela Jaunari ezkatzen dautzot, eta beste munduan euki daizuela betiko gloria. Aufera amatxo, aragia safitan ostikaka asten da, baña Jesus maitearen graziaz aragiya eta inperua aspiratuko dozuz. Ofegaitik, beti eskatu bear deutzagu grazi au; Andra Maria, Aita San Jose, Santa Monika eta zeruko santu eta santak bitarteko ipinten doguzala.

Agur, amatxo: gorantziak neure aide guztiai; nik eskuan mun egiten deutzat.

Fr. Valentin Berrio-Otxoa

AÑIARTE



GURUTZEKO JON DEUNAREN ESAKUN MAMINTSUAK.

1. Ixaki ilkoñak begi argi baxen ona dagiketsen, Jaunak beti estalin (agertu) ixan dauz bere jakintza ta gogo ogasunak. Biufikeriak arpegia gero ta geyago agertzen dauan gixaldi ontan, bañiz, sañi ta naroago estalin daroaz.


2. Ene Jaun eta Jaungoiko! Maitasun garbi ta zintzoagaz Zure bila dabilzazanak, pozez gañezka idoro barik, iñoz itxi ete zaitue? Ez, ene Maite; Zeure egañiz dabilzenai, bidera urtenik, lenen Zeu agertzen zakioez.

3. Nai oneko gixonentzat bidea lau ta biguna ixan añen, bide-dagiana oñez bizkor, gogoz bizi ta leiz bero ixan ezik, labur eta nekez ibili biarko.

ankak ausiaz bakarik ez eban il bere gaiztozko egafia. Sutara bota gura izan eban. Oratu eutson; baña... Kisto itxarrik egon! Jausi jako gainera ta bere astaz edo pixuz bernazurak ausi eutsozan... ta berak Kisto Gurutzalduari ausi eutsozan leku-lekutik ausi be!...



Beste gizon donga batek be—Malaga'n bertan—isekaz Jaunari adara jo gura izan eutson. Kisto'ren irudi bat artuta, edontzi bete ardau emon eutsan, edango ba-leu lez, batera zirautsoela: —«Artu, Kisto, ta edan, edan sendo». Biaramonean ardantegira joan zan opel (bukoi) bateko ardaua aldatzeko asmoz; ta, aldatzen ebilela, jausi jakon gainera ta upel andiak azpian artu eban. Bertan, zefaldo, geratu zan zoritxarreakoa, ardauak ifota.



Almeria'n, uriko enparantza-erdian jasotako Josu-Biotzaren ari-irudia berun-autsez margoztu (pintau) eben. Onegaz etziran ase; oraindik barabaskeri geyago. Lufera jaurtzea be otu jaken. Bota eutsezan sokak euren asmu nabarmena jadesteko; baña alperrik. Estu ta leyaz ebiltzezan zeregin zitalean; onango baten lokiak, amor-egiñik, eten yakezan, gustiak ankaz-gora lufera jausiz. Artu eben danbadeaz bi il ziran. Berun-autsez margoztu ebanak burua galdu ei-dau ta zoro-etxean ei-dago.



Aurtengo Aste-Santuz Kastel'on'go erian jazotakoa da laugarfen gertakari au. Bariku Guren egunean, eritarrik eleizan aurkitzen zirala, bertako abere-sendatzaleak zei-erdian lagun aldra bat batu ta, aren nagusi jaririk, itzaldi gartsua egin eutsen. Gero, eurretari bat eleizara yoan zan eta su-ziririko bat jaurti eban eliz-atarian. Aren ler-otsak dar-dar ipiñi ebazan eleizakoen azur-aragiak. Batera, «Il dala diñoen ori iya neuk garbitzen dodan» iñoala, eleiz-baruratu-ta, beste su-ziririko bat bota eban txadon-erdian. Zorigaiztokoari, baña, eskuan lertu edo efementau yakon, eta eskuan eroyazan beste gustiak be suak artu ebazan. Gustiz efeta, il-agiñean gelditu zan. Gexotegira eroan eben, baña ufengo egunean il zan, lkurtonak eskaka. Zabal begiak, erne belarrik!